

Ane Guiu Fernandez

A maila • Aipamena



Anne da nire izena, eta 1999ko abenduaren 30ean jaio nintzen, ordudanik nire bizilekua Goierri kokatzen da Itsasondan hain zuzen ere, hala ere nire betiko lagunak Zaldibian daude, mendiz babesturiko Goierriko txokorik politenean. Honen arrazoia zera da, bi urte nituenetik bertako Lardizabal Herri Eskolan ikasi nuela. Bertan nire bizitza errotuz eta gure eskola epelean irakurtzeko eta idazteko zaletasuna piztuz. Gerora, nire ikasle abenturak Ordiziarako bidea hartu zuen, eta Oianguren institutuan nabil geroztik. Aipamen hau irabazteak idazten jarraitzeko bultzada eman dit, eta horrelaxe jarraituko dut beste hainbeste urtean, azken finean idazteak mugarik ez du!

GU ZERGATIK EZ?

Liburutegiko usainak izugarrizko lasaitasuna eman izan dio betidanik Markeli. Haurra zenetik liburu artean igaro ditu bere bizitzako momenturik goxoenak, lagun artean baino goxoagoak, liburuak baititu bidelagun, lau urterekin irakurtzen ikasi zuen unetik. Filologia klasikoa ikastea iruditu zitzaion egokiena bere bidaideekin ahalik eta denbora gehien pasatzeko, haiekin lanean, haiekin bizitzen. William Shakespeareri buruzko lana egitea egokitu zaio. Eta Romeo eta Julietaren eleberria aztertzen ari da liburutegiko bere txokorik gogokoenaren babesean; arratsalde osoa emango du bertan eta zoriontsua da, ez zaio plan hoberik bururatzen.

Berak ez du sekula maitalerik izan, baina zirrara sortzen diote eleberrietako maitasun istorioek. Badaki, edo zuzenago esanda, uste du, halakoak ez direla bizitza errealean gertatzen, eta are gutxiago berari. Baina bere usteak liburu honekin deuseztatuko dira. Eta ez Shakespeareren idazteko era errealistagatik, edota Capuleto eta Montesco familien arteko areriotasunaren antzeko kasuren bat ezagutzen duelako; baizik eta liburuaren azken orrian aurkituko duen eskutitzagatik.

Altxor baten mapa balitz bezala aztertu du Markelek eskutitza, eta supituki fikzioa dela otu zaio, ikasle asperturen batek idatziriko testu txatxua. Baina hobeto aztertu eta gero, sentimendu gehiegi ikusi du idazlearen hitzetan. Eta disimulu handiz, orria erauzi eta bere motxilan sartu du etxean lasai irakurri ahal izateko. Banku bat lapurtu izan balu bezalako urduritasunarekin atera da liburutegitik, liburuzainari agur hotza eskainiz, apenas begiradak gurutzatu gabe.

Etxeke butakan eseri da, eta eseri bezain laster legez kontra lortu duen eskutitza atera du motxilatik. Behin eta berriz irakurri du honela dioen testua:

“Kaixo Martin.

Nire aholkuei kasu egin bazenien behintzat hasiko zinen oparitu nizun liburua irakurtzen, bai amaitu ere azken orrira iritsi bazara... Gustukoa izango zenuela espero dut, bai uste ere; azken finean, gure istorioaren isla da. Bi maitale eta ezinezko maitasun bat. Eleberrian familia

etsaietakoak direlako, gure kasuan gizarte atzerakoi hau dugu etsai bortitzena. Baina istorioan behintzat ezkutuka, tarteka, elkarrekin denbora pasatzea lortzen dute. Zeinen erraza dirudien ezta? Jakin nahiko nuke hain erraza izango ote zen, hemen, gure herri ñimiño honetan. Baina nork daki zaila dela inor saiatu ez bada? Eta gu bagara saiatzen garen lehenak? Aizu, gu zergatik ez?

Ez dut sekula ahaztuko duela bost urteko festa haietan gure ezpainak lehenengo aldiz elkartu zireneko zirrara. Gauero nire ametsetan sentitzen dut zure ahoaren epeltasuna... I d a t z i honen bidez eskatu nahi dizudana zera da, zure sentimenduak adieraztea, idatziz ahal bada. Badakizu oso lotsatia naizela eta ez nukeela aurrez aurre hau guztia esatea ez entzutea jasango. Idaztea ere asko kostatu zait egia esan, egunak eman ditut eskutitz xume hau idazten... baina askatu ditut barrenak eta askoz arinago sentitzen naiz orain, berdina egitea aholkatzen dizut beraz. Bai zu, baina batez ere, neurekoia izanda, ni lasaiago gelditzeko.

Zure erantzunaren zain gelditzen naiz beraz. Badakizu W. Shakespeare oso gustukoa dudala... eta irrikaz hartuko nukeela etxean Hamlet liburua, izugarri gustukoa izango dudala uste baitut... Zu bezain beste agian...

Maitekiro,

Josu Martinez Irigoien

1934ko uztailak 24, Arakaldo"

Aho bete hortz utzi du eskutitzak Markel. Lehenik eta behin, ez zuelako espero halako liburu batean era honetako eskutitzik aurkitzea; baina are gutxiago mutil batek sinatua izatea. Bikote homosexual baten ezinezko maitasunaren aurrean topatu da Markel, eta honek haurra zenean jasan behar izaten zituen isekak ekarri dizkio gogora.

Berak ez zuen futboleko jokatzeko gustuko eta horrexek eskolako Pinpirintxoa bilakatu zuen. Hainbat eta hainbat urtez ixilpean aritu zen negarrez. Eta gaurko egunez ere, malko batek ezpainetarainoko bideari ekin dio. Eta beste hainbestek lehenengoaren bidea jarraitu dute. Baina, berehala malkoak sikatu eta bere arreta bereganatu duen eskutitzari heldu dio. Erantzunak zer ote zioen pentsatu du, eta baita hura aurkitzea zeinen polita izango zen. Baina garrantzi gehiegirik eman gabe, afaltzeko bezperatik zuen pizzaren zati bi jan eta oherantz abiatu da.

Esnatu bezain laster Martin eta Josu etorri zaizko burura, eta otu zaio arratsaldean liburutegira joan eta Hamlet eleberria aurkitzea ez litzatekeela ideia txarra izango. Agian zorte apur batekin eskutitzaren erantzuna aurkituko duela, edo agian ez. Batek daki. Baina behintzat lanarekin aurrera jarraituko du, azken finean Hamlet ere Shakesperearen lan garrantzitsuenetako bat da. Burua istorio horretan zuela denbora gehiegi pasa du eta gosaltzeko denborarik gabe klaserantz abiatu da. Bidean kafetegi batean gelditu eta donuts bat erosi du, azukrez josia. Bere buruari agindu dio osasuntsuago jaten hasi behar duela. Erlojuari begiratu bat eman dio, berandu doa klasera, harritzekoa bera bezalako hamarreko ikasle batentzat. Non ote du burua? Korrika bizian abiatu da fakultaterantz.

Klasean ez du beste konturik izan buruan... Liburutegira joateko beharra sentitu du une oro. Burutik pasa zaio bazkaldu gabe joatea, baina gogoratu du goizean bere buruari agindutakoa, hobeto jaten hasiko zela alegia. Etxera iristean entsalada bat prestatu du gorroto duen arren, eta gogoz kontra bazkaldu du. Bazkaldu bezain pronto liburutegirantz abiatu da bere bizikleta gorrian, euria egiten zuenerako zuen anorak beltza jantzita.

Bere paradisura iristean urduri jarri da. Aurreko eguneko orrialdeaz oroitu da, "delitua" gauzatu izan balu bezala; momentu batez pentsatu du liburuzainak sarrera debekatuko ziola. Baina ez da halakorik gertatu, espero izatekoa zen modura. Klasikoen pasilura abiatu da zuzenean, eta bertan Hamlet liburua hamaikale aurkitu ditu. Hamarrak hartu ditu eta bere betiko mahaia okupatuta zegoenez aldamenekora jo behar izan du apur bat erresuminduta. Leiho ondoko mahaia du Markelek gustukoaren, euria ari duenean batez ere, egun hartan bezala hain zuzen ere. Liburuak atzeko orritik irekitzen hasi da eskutitza bilatu nahian, baina ez du eskutitzik

aurkitu, eta erabat etsita liburuak bere tokira itzuli ditu.

Apalera iritsi denean liburu eder bat ikusi du Originalak jartzen duen apalean, Hamlet ingelesez jartzen du azalean, aurretik pasa denean ez zaio bururatu bertatik liburua hartzea. "Saiatzeagatik ez dut ezer galduko..." esan dio bere buruari. Ingelesezkotik argitalpena hartu du eta bere betiko txokora joan da, jada libratua zena. Aurkitu du. Begiak dirdirka ditu. Aurreko egunean bezala orria puskatu eta motxilan sartu du, inor ez konturatzeko moduan. Gaurkoan lasaiago atera da bere gordelekutik, eta liburuzainari Bihar arte epel bat esan dio, irribarre batez lagundua.

Etexera iristearekin bat, motxilako sakela ireki eta paper preziatua atera du bertatik. Gutun hau askoz era informalagoan hasten dela konturatu da, eta honek eta tintaren kolorea joanda egoteak benetazko istorio baten aurrean dagoela egiaztatu dio berriz ere. Gogotsu hasi da irakurtzen.

"Tepa Jota!

Zer moduz bizia? Denbora luze daramagu elkar ikusi gabe... non sartzen haiz? Ziurrenik liburu artean egongo haiz... Ongi asko ezagutzen haut nik Jotatxo... Gehiago atera beharko hintzateke bestela itoko haiz hainbeste hitzen artean."

Une batez Markel Josurekin identifikatua sentitu da. Eta honek arraro sentiarazi du. Bere sentimenduei jaramon gehiegi egin gabe, irakurtzen jarraitu du.

"Bueno... eta formalkeriak alde batera utzita, benetan esan beharrekoa esaten hasiko naiz, gaztelaniaz esaten den modura, al grano, harira. Egia esan ezustean harrapatu ninduen zure idatziak, eta pare bat egun behar izan ditut esandako guztia barneratu, eta gaur sentitzen eta pentsatzen dudako guztia azaleratu ahal izateko. Eleberria biziki gustatu zitzaidan. Arrazoi zenuen, itzela da, eta bai, zure antzera eman zidan neuri ere zer pentsatua. Hamlet ez dut irakurri nahi, izan ere nahikoa dut tragedia bakarria irakurrita, baditut eta nik nahikoa tragedia etxean... Badakizu, aita... ama..."

Eta ez... nik ere ez dut ahantzi zubipean elkarri eman genion muxu heze hura, errekaaren hezetasuna zure ezpainenekin nahastuta, sua, ferekak... gauero azaltzen dira hauek ere nire amets beroenetan. Momentu hartan konturatu nintzen zenbat maite zaitudan Josu... Eta momentu berean ohartu nintzen, ezin izango genuela elkarrekin denborarik igaro, lagun modura ez bazen behintzat. Eta horrek izugarritzko amorrua sorrarazi zidan nire barnean, eta zerbait gaizki egiten ari nintzela sentiarazi nion neure buruari. Eta oraindik ere, hori sinestarazi nahi izaten diot neure buruari zurekin amesten dudako guztietan. Baina borroka horretan bihotzak arrazoiari irabazten dio, eta zu ateratzen zara garaile beti Jota...

Julieta eta Romeoren maitasun istorioa jende orok du gustuko, gurea zergatik ez? Galdera horixe egin zenidan zure gutunean, gu zergatik ez? Eta gauza berbera galdetu nion nik neure buruari liburu potolo hori irakurtzen ari nintzen bitartean. Bada, erantzuna oso argia da Jota, gizarte zapaltzaile eta inposatzaile batean bizi garelako, non sexu bereko pertsonen arteko harremanak pekatu modura ikusten diren, are gehiago gaixotasun modura. Eta ez, ez pentsatu gaixo gaudenik, guk elkar maite dugu, eta ez da ezer txarra, baina gure artekoa ezinezkoa da. Eta halaxe izango da beti... Honen harira, berri txar bat helarazi behar dizut... Ez dakizu zeinen gogorra den niretzat, eta zeinen gaizki ari naizen pasatzen... Lehen esan dizudan bezala bizitza tragedia bihurtu zait. Jada biok 26 urte ditugu, eta ezkondu barik gaude biok, eta ez dut ezkongairik. Eta amak hau ikusita neska bat aurkitu dit berarekin ezkontzeko. Ez da oso neska polita baina diruduna da, eta hirian bizi da, Bilbon, eta hara joan beharko naiz ni ere bizitzera. Maitasunik gabe, lagunik gabe, ni, Martin Mendizabal Urrutikoetxea, bakarrik egongo naiz Bilbo izeneko hiri erraldoian, galduta eta bakarrik. Nire bizitza ezezagun baten ondoan igaroko dudala pentsatze hutsak hotzikarak sortzen dizkit...izua... eta zer esanik ez zu gehiago ikusiko ez zaitudala pentsatzeak.

Baina istorio honi amaiera eman behar diogu. Egia esan ez da inoiz hasi, ezta? Ahaztu nazazu, hori izango da biontzat onena, zaila dela badakit, baina sufrimenduz bizitzea baino hobea da

ahantzuraren zingiran bizitzea...

Amaitu dira beraz gutun izkutu hauek, agian egunen batean itzuliko naiz herrira, eta biok elkartuko gara eta gure gaztaroaz barre egingo dugu biok. Lehen esan dizut ni ahazteko, baina lan zaila izango da niretzat hain pertsona garrantzitsua izan dena ahaztea. Ikusi arte beraz Josu.

Adeitasunez, zure lagun min

Martin Mendizabal Urrutikoetxea

1934ko urriak 26, Arakaldo."

Ez zuen amaiera hau espero. Apur bat lur jota gelditu da, eta etsipenaren etsipenaz, eskutitz gehiago aurkituko ez dituela jakinda istorioa nola amaitu ote zen imaginatzen hasi da. Eta bat-batean ideia bikaina etorri zaio burura. Gelarantz abiatu, bere ordenagailua hartu eta lehenengo eskutitza irakurri zuen butakan eseri da. Irribarre bat ahoan zintzilikatuta, irrikaz Josu eta Martinen arteko istorioa idazteari ekin dio...